

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2012-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2012ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostena Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakunde Autonomoen kontuek ez ezik (Administrazio-Sektore Publikoa), Foru Enpresen Erakunde Publikoen eta Foru Elkarte Merkataritzakoen kontuek ere (Enpresa-Sektore Publikoa) osatzen dute. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako batek baterako boto partikularra egin du.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Foru Sektore Publikoaren finantza egoera aztertzen du.

Administrazio-Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2012ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzarioa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan Aldundiari eta erakunde autonomo bati dagokienez jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Diru-laguntzak emateari dagokionez, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko zailtasuna justifikatu gabe guztira 1,8 milioi euroren 8 diru-laguntza eman ditu. Bestetik, enpresa pribatu bati eta elkarte bati emandako izendapen nominatiboak aurrekontuan, guztira 2,4 milioi euroren zenbatekoan, Gobernu Kontseiluak 1,1 milioi euroan gehitu ditu eta honenbestez, aldaketa esanguratsua izan dute horiek.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan Gizarte Urgazpenerarako Foru Erakundearen salbuespen esanguratsuen obra, zerbitzu eta hornigaiak zuzenean kontratatu izana da, guztira 0,8 milioi euroren zenbatekoan, dagozkion kontratazioko espedienteak izapidetu gabe.

BFAren Kontuari dagokionez, HKEEk uste du egoki erakutsi duela 2012ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa ez ezik, baita ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala ere, hainbat ez-betetze salbuetsita; izan ere, eragiketarako erregistratzeko baliatu

dituen irizpideak ez ditu erakunde fiskalizatzaileak onartzen eta horren ondorioz, Metatutako Emaidza 16,9 milioi euro murriztu da.

Berebat, azpimarratzekoa da Europako Batzordeak Europar Batasuneko Auzitegiari aurkeztutako auzi eskeari dagokionez sortutako zalantza egoera, 3/1996 eta 7/1996 Foru Arauetan ezarritako kenkariak eta zerga hobariak berreskuratzeko beharrezko neurriak ez hartu izanari buruzkoa.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu atal irizpenen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Gomendio horiek aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalen kudeaketari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari, langileriari eta beste batzuei dagozkie.

BFaren finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak uste du foru sektore publikoaren zorpetzeak ez duela apenas aldaketarik izan 2012ko ekitaldian. 2012ko ekitaldiko datuek erakusten dute 2012ko urteko diru-bilketarekin eta gastu arruntari eusteko ildoari jarraiki, inbertsio errealei aurre egingo dien baliabideak sortzeko gaitasuna dagoela, nahiz kopuru mugatuetan, 2011ko ekitaldiko bideari lotuta. Hori guztia Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa ezartzearen ondorioz zorpetzea baliatzeak duen mugaketarekin.

Enpresa Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, ez-betetze zehatzak azalerratu dira sozietate baten langileen kontratazioan eta bi sozietateren ondasunen kontratazioan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak egiaztatzeari dagokionez. Bestetik, urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki erakusten dutela 2012ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala eta ekitaldi itxierako finantza egoera; salbuespen bakarra dago Azpiegiturak, Saren kontuetan, izan ere, izakinak eta ibilgetua eragiten dituen zalantza egoera dago, ekitaldi itxieran, hurrenez hurren, 119,9 eta 19,3 milioi euroren saldoa dutenak.

Finantza gaitetan, HKEEk jakinarazi du Aldundiak 56,2 milioi euro eman dituela 2012ko ekitaldian Enpresa-Sektore Publikoarentzat: 42,8 milioi euro kapitala handiagotuta, eta 13,4 milioi euro sozietate horien galerak berdintzeko. Berebat,

sozietate hauei 3,5 milioi euroren diru-laguntzak eman dizkie inbertsioak egin ahal izateko. Ondoren, 2012ko ekitaldian zorpetzea % 1,2 gehitu dela aipatzen du eta hortik kopururik handiena Interbiak, SAri dagokiola, azpiegiturak egin ahal izateko. Epe laburreko finantzaketari dagokionez azpimarratu du finantza egoerak epe laburrean aktiboak pasiboari aurre egiteko ezintasuna erakusten duela, txostenean zehaztu diren hiru sozietatetan izan ezik. Amaitzeko, ekitaldiaren emaitzari erreparatuta, adierazi du Enpresa-Sektore Publikoaren 2012ko ekitaldiaren galerak 82,7 milioi eurorenak izan direla eta Sektore horren ustiaketa sarreretatik % 71,8 lotutako enpresei zerbitzuak emateari dagozkiola, nagusiki BFARI.